



ORGANOEN ETA EHUNEN TRANSPLANTERAKO EMAILE BIZI ALOGENIKOA

Ebakuntza bat egingo dizute eta ebakuntza horretan erauziko dizuten ehuna dohaintzan emateko baimena eman duzu.

Behar duten beste gaixo batzuk tratatzeko erabiliko da agian ehun hori.

Zure medikuak galdera batzuk egin dizkizu zure historia medikoaz, jaso dituzun tratamenduez, bizi-ohiturez eta bidaiez, emaila izan zaitezkeela egiaztatzeko.

Kontsulta egin denetik ebakuntza egin bitarteko denboran, honako hauek kontuan hartu beharko dituzu emaila izaten jarraitu ahal izateko:

- Sexu-transmisiozko gaixotasunak harrapatzeko arriskua dakarten egoerak ekidin beharko dituzu; harreman ez seguruak badituzu, preserbatiboa erabiltzea gomendatzen dizugu.
- Bide parenteraletik drogak hartzeak, piercing bat jartzeak edo tatuajeren bat egiteak emaila izateko baliogabetuko zintuzkete.
- Akupuntura bidezko tratamenduren bat jasotzea irizpide baztertzaila da emaila izateko.

Ebakuntza egin baino egun batzuk lehenago, zurekin harremanetan jarriko dira, eta medikuak kontsultan egin zizkizun galdera berak egingo dizkizute berriro. Aipagarria iruditzen zaizun daturen bat badago, jakinaraz diezaguzu.